

Gure produktua bezeroei heltzeko estrategia integrala garatuko, publizitate kanpaina anitz eta eraginkorren bidez, bidalitako mezua ahalik eta modu zabal eta eraginkorrean zabaltzeko, helarazteko eta ikusgarritasuna handitzeko. Horretarako hainbat komunikazio kanal erabiliko ditugu, hala nola, kartelak, iragarki bisual eta audio bidezkoak eta bestelako kanpaina komunikatiboak, marka eta produktuaren onurak modu argi eta erakargarrian aurkezteko. Publizitate hori, leku estrategikoetan kokatuko dugu, gure helburu publikoaren arreta erakartzeko eta mezua modu eraginkorrean transmititzeko.

Gainera, baliabide digitalak ere protagonista izango dira gure estrategian. Webgune moderno bat erabiliko dugu, gure zerbitzuak xehetasunez aurkezteko, baita erosotasunez informazioa eskainiko duen kontsulta atala ere. Sare sozialen indarra aprobetxatuko dugu edukia modu dinamikoan partekatzeko, komunitate aktibo eta konprometitua sortzeko, eta bezero potentzialekin elkarreragiteko. Sare sozialen bidez (Instagram, Tik Tok, X eta Facebook) promozioak eta iritziak partekatuko ditugu.

Era berean, telefono bidezko komunikazioa erabiliko dugu zerbitzu pertsonalizatuago bat eskaintzeko, bezeroen galderak argitzeko eta beharrak ulertzeko. Kanal hauek, guztiak elkarlanean arituko dira, bezeroei hurbiltasun handiagoa eskainiz eta haien esperientzia orokorra hobetuz. Estrategia integral honek gure markaren presentzia sendotuko du, bezero berriak erakarriko ditu eta lehendik ditugunekiko lotura estuagoa sortuko du, horrela gure helburuak betetzeko bidea eginez.

Azkenik, gure zerbitzuen kalitatearekin eta bezeroarekiko arretarekin konpromisoa erakutsiko dugu bezeroekin elkarreragiteko espazioak sortuz. Horretarako, bezeroarentzako arreta-talde espezializatua eta eskuragarri egongo da edozein kontsulta, iradokizun edo erreklamazio azkar eta eraginkor kudeatzeko. Halaber, feedback aktiboa biltzeko mekanismoak ezarriko ditugu, eskaintza etengabe hobetu eta bezeroen beharrak gero eta zehatzago asetzeko. Estrategia integral eta dinamiko honen bidez, gure produktua merkatuan indartuko dugu eta bezeroekin harreman sendo eta iraunkorra sortuko dugu.

